

# **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Dakigun bezala garrantzitsua da enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei transmititu diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren baliabideak. Funtzesko baliabideak ondoko kategoriatan banatu daitezke: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Lehen aipatu dugun bezala, baliabide horiek hainbat motatakoak dira. Batez ere, gure lokalak gurpil-aulkiak eskaintzen ditu GPS batekin.

Lehen salmentak lortu ondoren, negozioa ondo doala ikusten badugu, lokal bat alokatzeko asmoa dugu Zuazon edo inguruetan. Lonja batzuei begira gaude, atzeko aldean biltegi bat edukitzeko barrunbe dutenak, eta bertan gordeko ditugu gurpil-aulki guztiak.

Alokairuko lonjak leku asko izatea da bilatzen ari garen gauzarik garrantzitsuena, gurpildun aulkiek leku asko hartzen baitute.

Biltegiaren atzealdean biltegi bat izateaz gain, dendan geratzen ez diren gurpil-aulki guztiak gordetzeko trasteleku bat alkilatzea pentsatu dugu. Trastelekua, gure bigarren biltegia izango litzateke eta dendatik oso gertu egongo litzateke.

Orduan ideia hau, dendan gurpil-aulkiak edukitzea zen erakusketa moduan, eta, beste alde batetik, trastelekua biltegitratze moduan erabiltzea zen.

Horrenbestez, inguruetako pertsonak fisikoki lokala dagoen guneararte joatea ez da beharrezkoa, beste atal batean aipatu dugun bezala, daukagulako Nacex enpresarekin harremana eta honen zerbitzuak; hau da, gurpil-aulkiak etxeetara edo kontsumitzaileak nahi duen lekura eramatea.

Izan ere, lokala batez ere jende helduari zuzendua dago, nahiz eta publiko guztientzat irekia egotea. Funtsezkoa litzateke zerbitzari gazteak kontratatzea. Hau da, gazteak kontratatzea laguntza handia izan daiteke gure lokala aurrera eramateko eta, horrela, bezeroekiko harremana hobetzeko, gazteentzat baitira eta hobeto uler dezakeen. Lan-salbuespenen bat duten gazteak.

Goian azaldutakoaz gain, lokala aurrera eramateko funtsezkoa edo garrantzitsua izango litzateke gure lokaleko langile gazte edo edozein langile beti prest egotea gure bezeroei laguntzeko. Hau da, gurpil-aulki desberdinen mundua ezagutzea, nolabaiteko esperientzia izatea. Baita, adineko jendearekin eta desgaitueekin tratatzen dakiten pertsonak ere.

Erosleari onik handiagoa egingo diona aholkatzen dakien jendea behar dugu.

